



ARTE GARAIKIDEKO HIZTEGIA



Abstraction-Création

1931ren hasieran joera desberdinetako artista abstraktu asko elkartu zen Theo van Doesburg, Naum Gabo, Antoine Pevsner, Auguste Herbin eta Georges Vantongerlooaren inguruan eta *Abstraction-Création* artista-elkartea sortu zen arte ez-objektiboa sustatzeko asmotan elkarrekin egindako erakusketa bidez. Herralde guztietako pintore eta eskultoreentzat irekia zegoenez, elkarre hori momenturen batean 400 kide izatera iritsi zen. Mugimendu abstraktu guztien baterapuntu izan zen, konstruktibismoak hasi eta neoplastizismora, abstrakzio lirikotik espresionistara. Elkarteko kide gailenenak izan ziren Gabo, Pevsner, Mondrian, Doesburg, Lissitzky, Kandinsky, Arp, Kupka, Magnelli, Baumeister, Herbin eta Vantongerloo. Estilo eta nortasuneko desberdintasun guztien gainetik esan daiteke badagoela guztien arteko joera komun bat formak kolorea baino garrantzi handiagoa duen arte konstruktibo eta konkretu bat egite aldera.

Arte konstruktibo-abstraktuari aplikatzen zaion "konkretu" deitura berez ateratzen den ondorio logikoa da, lerroa eta egitura geometrikoa, objektu figuratiboa bezalaxe, datu erreal bezala existitzen direla kontutan hartuz gero. "Abstraktua" latinezko hitzaren adieran —*abstraktua* = zerbait materiatik desmenpetutakoa, indeliberatutakoa—, ez da sartzeko *forma abstraktu* = *ez-figuratiboen* existentzia konkretu hau.

Gogoeta teoriko-metodologikoekin batera, *Abstraction-Création* hau pinturan ikerketa kromatikoak egitera dedikatu zen nagusiki, batez ere ikuspen-efektu fisiko-optikoak egitera, hala nola antolakera kromatiko espazial eta plastikoa eta bibrazio-efektua, koloretako konposizio geometrikoetako adibidetan ematen zirenak. 1936. urterarte bata bestearen jarraian eta erregularitasunez egin ziren erakusketak, eta garrantzi handia izan zuten arte abstraktua finkatzen eta nagusitzen. 1932 eta 1936 urte bitartean urtero kaleratu zen argitalpen bat *Abstraction-Création, Art non-figuratif* izenarekin.

Abstrakzio berria

Kontzeptu honekin (*post-painterly-abstraction*) Ipar Ameriketako arte-korronte bat adierazten da. Korronte hori gerra osteko pintura abstraktuaren forma nabarmenki sentitibo eta subjektibo-kaligrafikoetatik aparte bereizten da kolore puruen espresio-indar objektiboaren legez, kolore puruekin artistaren egite gestualean suposatzen

bait da efektu koloristaren abstrakzioa. *Action painting* mugimenduak abstrakzio berrirantz izan zuen eboluzioaren barruan Helen Frankenthaler artista iparramerikarraren pinturan igarantzako fase liriko bat azaltzen zen, jadanik bere esanbehar plastikoa erabat tonalitate kromatikoaren berezgarritasunean kontzentratzen zuena. Kolore puruko espazioekin pintatu beharreko azalera egindako pintura-esperimentazio honi *post-painterly-abstraction* delakoarekin eman zitzaion jarraipena, hor sartzeko zirelarik —besteren artean— Barnett Newman, Ad Reinhardt, Kenneth Noland, Morris Louis, Frank Stella eta Ellsworth Kelly. Horien koadrotan kolore tonalen arteko diferentziazioa gauzatzera iritsi ziren azalera kromatikoaren eta kolore-zirrirenden gradazio zehatz definitutako baten bitartez. Horrekin batera propietate kromatikoaren eskala bariatua berraurkitu zuten artistak, sakontasuneko efektu desberdinetatik gardentasuneraino eta bibrazio-ahalmeneraino zabaltzen zena. Abstrakzio berriak horrekin kolorearen tonalitate abstraktuaren inbentarioa egitea lortu zuen objektibitate aske utziz. Morris Louisek, asmo berarekin, kolore-banda leun eta fluidoekin lan egiten duen bitartean, *hard-edge* deitu abstrakzioko artistak elkarren artean zurrin mugatutako forma geometrikoz baliatzen dira espazioen banaketan koloreak betetzen duen izateko egiturazaila ulergarri egiteagatik. Nicholas Krushenick eta Al Held iparramerikarrek eta berebat Winfried Gaul eta Karl Georg Pfahler artista alemanekin kanporatzen du koloreak bere erreklamazio-balioa, eta trafikoko seinaleetako eta hiri-barruko errotulazioko koloreen mintzairan erabiltzen den bezala seinaleetako formula moduan erabilia izaten da. Erreklamoko arte honek kolorearen intentsitate luminikoa nabarmentzen du "txokeko indar estetiko" bezala.

Abstrakzio Lirikoa

Pintura abstraktu modernoaren barnean funtsezko joera bati ematen zaion deitura. Abstrakzio geometrikoak ez bezala izaera espresibo markatua dauka honek. Pintura gestual eta informal orok, hala nola *taxismoak* eta *action paintingak* —Wols eta Pollockekin hasi zirenak—, bere baitan daruma inplizitu abstrakzio lirikoaren kontzeptua. Abstrakzio liriko-espresibo honen funtsa osatzen dute Kandinskyren irudi-harmonia erritmikoak alde batetik, eta automatismo surrealistaren pintura gestual bapatekoak bestetik.